

## Airera Egindako Emisioak Neurtzeko, Zenbatesteko eta Kalkulatzeko Gidaliburu Teknikoa

- EPER, Poluzioa Prebenitzeko eta Kontrolatzeko uztailaren 1eko 16/2002 Legea
- EPER inbentarioa. 2000ko uztailaren 17ko EBren Erabakia

**ARGITARATZAILEA:**

© IHOBE – Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa

**TXOSTENAREN EGILEA:**

Labein Fundazioa, IHOBE, S.A.rentzat

2005eko ekaina

# AURKEZPENA

---

Irailaren 24ko Kontseiluak ezarritako 96/61/EE Zuzentarauak, Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuei buruzkoak –**IPPC** Legea deitzen zaio–, ingurumen-legeriaren arloan ikuspegi berritzaile bat proposatu du. Izan ere, zenbait kontzeptu berri hartzen ditu kontuan, besteak beste: ikuspegi osatu eta integratzailea, ingurumena multzo gisa hartzen duena; erabil daitezkeen teknika onenetan oinarrituta aldizka-aldizka berrikus daitezkeen emisio-mugak ezartzea; informazioa trukitzea eta informazioa gardena izatea; baimen integralak; etab.

Halaber, Zuzentaru horren 15. artikulua Europako emisioen eta emisiogileen inbentarioa (EPER) egitea barne hartzen du. EPER inbentarioa 2000/479/EE Erabakiaren bidez ezarri da. Horren bidez, EBko estatu kideek IPPC Zuzentaruaren (I. eranskina) aipatzen diren industria-iturrietatik sortzen diren 50 substantzia poluitzailearen datuak bildu eta Europako Batzordera bidali behar dituzte.

Lan horietan, urtean uretara eta atmosferara isurtzen diren eta muga-balioak gainditzen dituzten poluitzaileen kantitatea adierazi behar da (kg/urte). Bai poluitzaileak, bai muga-balioak erabakiaren II. eranskinean zehaztu dira, eta zenbatetsi, neurtu edo kalkula daitezke.

Esparru horretan, Gidaliburu hau, Europako Batasuneko ingurumen-politikarekin bat datorren politika garatzeko gure herrian ezartzen ari garen Garapen Iraunkorraren Euskal Ingurumen Estrategiaren (2002-2020) tresnetako bat da. Hori guztia Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saila ari da koordinatzen, otsailaren 27ko 3/1988 Lege Orokorrak –Euskal Autonomia Erkidegoan Ingurumena Babesteari buruzkoa– ezartzen duenaren arabera.

Gida hau egiteko, kontuan hartu dira Euskal Autonomia Erkidegoan dauden prozesuak. Ereku geografiko horretatik kanpo erabiliz gero, akatsak egin litezke.

# ESKERRAK

---

Eskerrak eman nahi dizkiegu gidaliburu honetan ekarpenak egin dituzten enpresa guztiei, sektoreari buruz dakitena eta sektorean duten eskarmentua guri eskaintzeagatik.

Enpresa horien guztien laguntzarik gabe, ezin izango genuen gidaliburua egin.

# AURKIBIDEA

|  |           |
|--|-----------|
| <b>AURKEZPENA .....</b>  | <b>3</b>  |
| <b>ESKERRAK 4</b>  |           |
| <b>0.- GIDALIBURUAREN XEDEA .....</b>  | <b>7</b>  |
| <b>1.- IPPC ZUZENTARAU/LEGEA ETA EPER ERABAKIA SEKTOREAN .....</b>   | <b>9</b>  |
| 1.1.- IPPC ZUZENTARAU/LEGEA SEKTOREAN.....   | 9         |
| 1.2.- EPER ERABAKIA SEKTOREAN.....   | 12        |
| 1.3.- NEURKETA/KALKULU/ZENBATESPENETAN OINARRITUTAKO EMISIOEN<br>BALIOESPENA .....                                   | 15        |
| <b>2.- EKOIZPEN-PROZESUEN DESKRIBAPENA .....</b>   | <b>19</b> |
| 2.1.- PROZESU OROKORRA. HILTEGIAK.....   | 19        |
| 2.2.- PROZESU OROKORRA. OKELA PROZESATZEA .....  | 21        |
| 2.3.- PROZESU OROKORRA. ARRAINA ONTZIRATZEA .....  | 21        |
| 2.4.- PROZESU OROKORRA. LANDARE-OLIOA PROZESATZEA.....   | 22        |
| 2.5.- PROZESU OROKORRA. ESNEKIAK. ....   | 26        |
| 2.6.- PROZESU OROKORRA. KANALAK EDO ANIMALIA-HONDAKINAK<br>EZABATZEKO EDO APROBETXATZEKO INSTALAZIOAK .....          | 27        |
| 2.7.- PROZESU OROKORRA. OILO ERRULEEN GRANJAK .....  | 28        |
| <b>3.- EMISIO ATMOSFERIKOAK .....</b>  | <b>31</b> |
| 3.1.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. HILTEGIAK .....  | 33        |
| 3.2.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. HARAGIA PROZESATZEKO INSTALAZIOAK .....  | 34        |
| 3.3.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. ARRAINA ONTZIRATZEA. ....  | 34        |
| 3.4.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. LANDARE-OLIOAREN PROZESATZEA.....  | 35        |
| 3.5.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. ESNEKIAK .....   | 35        |
| 3.6.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. KANALAK EDO ANIMALIA-HONDAKINAK<br>EZABATZEKO EDO APROBETXATZEKO INSTALAZIOAK .....      | 35        |
| 3.7.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. OILO ERRULEEN GRANJAK .....  | 36        |
| <b>4.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK.....</b>  | <b>37</b> |
| 4.1.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. HILTEGIAK .....   | 37        |
| 4.2.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. LANDARE-OLIOA PROZESATZEA.....  | 37        |
| 4.3.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. KANALAK EDO ANIMALIA-HONDAKINAK<br>EZABATZEKO EDO APROBETXATZEKO INSTALAZIOAK ..... | 38        |
| 4.4.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. OILO ERRULEEN GRANJAK .....   | 38        |
| 4.5.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. INSTALAZIO LAGUNTZAILEAK.....   | 40        |
| <b>5.- EMISIOEN KALKULUA. EMISIOEN KALKULUA .....</b>  | <b>43</b> |
| <b>6.- BIBLIOGRAFIA.....</b>   | <b>45</b> |

|   |           |
|---|-----------|
| <b>ANEXOS</b>   | <b>47</b> |
| <b>I. APLIKATU BEHARREKO LEGEAK (INDARREAN DAUDENAK ETA IZANGO DIRENAK)</b> | <b>51</b> |
| <b>II. ATMOSFERA-POLUITZAILEAK NEURTZEKO METODOAK</b>                       | <b>57</b> |
| <b>III. NEURTZEKO AZPIEGITUREN ZEHAZTAPENAK</b>                             | <b>75</b> |
| <b>IV. ESTEKA INTERESGARRIAK</b>  | <b>81</b> |
| <b>V. SEKTOREETAKO GIDALIBURUEN ZERRENDA</b>                                | <b>85</b> |

## **0.- GIDALIBURUAREN XEDEA**

**EPER Aire** **Gidaliburu** honen xedea Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailarentzat eta EAeko sektorearentzat tresna praktikoa izatea da. Honekin, “Poluzioaren Prebentzioari eta Kontrol Integratuei buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen” (IPPC Legea) mendean dauden “nekazaritzako elikagaigintza eta abeltzaintza” sektoreko enpresek eta erakundeek aukera izango dute parametro poluitzaileak eta horien ezaugarriak identifikatzeko, eta neurtzeko, zenbatesteko eta kalkulatzeko metodoak ezagutzeko.

Gidaliburu honekin, enpresek EAeko Ingurumen Organoari ekarpenak egin ahal izango dizkiote, aurrez baliozkotutako metodoak erabiliz, bai neurketa-datuetatik, bai gidaliburu honetan bildutako emisio-faktoreetatik abiatuz, edo zenbatespen-metodoak erabiliz, bestelako daturik ez dagoen kasuetan.

Gidaliburu honek emisioak neurtzeko ekipoei, instalazioei (laginak hartzeko instalazio-tximiniak) eta neurtzeko eta analizatzeko metodologiari buruzko informazio praktikoa osagarria du.





# 1.- IPPC ZUZENTARAU/LEGEA eta EPER ERABAKIA SEKTOREAN

## 1.1.- IPPC ZUZENTARAU/LEGEA SEKTOREAN

Poluzioaren kontrol integratua ingurumeneko baimen integratuan oinarritzen da; hori, hain zuzen ere, esku-hartze administratibo berria da eta orain arte bete beharreko ingurumen-baimenen multzo zabala ordeztu eta biltzen du. Horrek balio erantsia ematen dio, banakoen mesedetan, administrazioko mekanismoak izugarri sinpletzen baititu.

Lege hori indarrean sartzean, hainbat ingurumen-baimen indargabetu dira, hala nola hondakinen ekoizpenari eta kudeaketari dagozkionak –errausketarenak barne–, komunitate barneko arroetako ur kontinentaletako isurketei dagozkienak, itsasoko nahiz lehorreko eremu publikoetara –lehorretik itsasora– egiten diren isurketei dagozkienak eta poluzio atmosferikoari dagozkionak. Halaber, gai arriskutsuak isurtzeari dagokion salbuespen-erregimena indargabetzen da.

“Nekazaritzako elikagaigintza eta abeltzaintza” sektoreak hainbat azpisektore biltzen ditu. Horiek epigrafe hauekin identifikatzen dira IPPC legearen arabera:

| IPPC Legearen eta EPER Erabakiaren araberako jardueren eta instalazioen kategoria   | NOSE-P kodea | NOSE-P prozesua  |
|---|--------------|--|
| 6.4. Hiltegiak (>50 t/egun), esne-ekoizpeneko instalazioak (> 200 t/egun) eta beste zenbait lehengai (>75 t/egun) edo barazki (>300 t/egun) | 105.03       | Elikagaigintza eta edarigintza. (Talde osoa)                                     |
| 6.5. Kanalak edo animalia-hondakinen ezabatzeko edo aprobetxatzeko instalazioak (> 10 t/egun)   | 109.03       | Kanalak edo animalia-hondakinen errauskea. (Hondakinen errausketa eta pirolisia) |
|   | 109.06       | Hondakindegiak. (Hondakin solidoak lur gainean edo lurrazpian metatzea)          |
|   | 105.14       | Kanalen edo animalia-hondakinen aprobetxamendua (Birziklatze-industriak).        |
| 6.6. Hegaztiak (>40.000), txerriak (>2000) edo txerramak (>750) hazteko instalazioak.   | 110.04       | Hartitze enterikoa (Talde osoa)  |
|   | 110.05       | Ongarri organikoen kudeaketa (Talde osoa)  |

Hona hemen zenbait definizio:

**Instalazioa:** IPPC Zuzentaruaren I. eranskinean azaltzen diren jarduerak –bat edo gehiago– eta establezimenduko jarduerekin erlazio tekniko zuzena duten jarduerak –emisioetan eta poluzioan eragin dezaketenak– gauzatzen diren unitate tekniko eta egonkorra.

**I. eranskineko jarduera:** IPPC Zuzentarauaren I. eranskinean azaltzen den jarduera, EPER gidaliburuaren A3 eranskinean zehazten diren kategorien arabera.

**Gunea:** titularrak I. eranskinean azaltzen diren jarduerak –bat edo gehiago– gauzatu dituen instalazio bat edo gehiago biltzen dituen establezimendu industrialak.

2002ko uztailaren 1eko IPPC Legearen arabera (IPPC Zuzendarua estatu espainiarrera ekarrita):

- \* Gaur egungo instalazioek **2007ko urriaren 30a arteko epea dute egokitzeko**; hortik aurrera, dagokien ingurumen-baimen integratua izan behar dute.
  
- \* **Ingurumen-baimen integratuak gehienez 8 urteko epea** izango du, eta, interesdunak hala eskatuta, hurrengo eperako berri ahal izango da. Instalazioaren titularrak epemuga amaitu baino **10 hilabete lehenago, gutxienez, eskatu behar du baimena berritzea.**

**INSTALAZIOETAKO TITULARREN BETEBEHARRAK ETA INGURUMEN-BAIMEN INTEGRATUAREN EDUKIAK**

Lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren jarduera industrialak gauzatzen diren instalazioetako titularrek honako hauek bete behar dituzte:

- Ingurumen-baimen integratua eskuratu eta horretan ezartzen diren kondizioak bete behar dituzte.
- Aplikatu beharreko legeek eta ingurumen-baimen integratuak berak informazioa kontrolatzeko eta hornitzeko ezartzen dituzten betebeharrak bete behar dituzte. Instalazioetako titularrek urtean behin, gutxienez, jakinarazi behar dizkiote EAERI instalazioari dagozkion emisio-datuak.
- Hauek jakinarazi behar dizkiote organo eskudunari, ingurumen-baimen integratua eman ahal izateko:
  - instalazioan egin nahi den edozein aldaketa –funtsezkoa izan ala ez izan–;
  - titulartasuna aldatzea;
  - ingurumenean eragina izan dezakeen edozein gertaera edo istripu.
- Zaintzen, ikuskatzen eta kontrolatzen dihardutenei laguntzea eta haiekin batera jardutea.
- Lege horretan ezartzen diren beste betebeharrak eta aplikatu behar zaizkion gainerako xedapenak betetzea.

Instalazioetako titularrek ingurumen-baimen integratua eskuratzeko erakunde eskudunari eman behar dioten informazioak, gutxienez, hauek izan behar ditu:

- Lurzorua eta lurpeko urak babestuta daudela bermatzen duten aginduak, hala dagokionean.
- Instalazioak sortutako hondakinak kudeatzeko erabiliko diren prozedura eta metodoak.
- Urruneko edo mugaz gaindiko poluzioa minimizatuko dela bermatuko duten aginduak, hala dagokionean.
- Emisio- eta hondakin-mota guztiak tratatzeko eta kontrolatzeko erabiliko diren sistemak eta prozedurak –neurtzeko metodologia zehaztuta–, maiztasuna eta emisioak ebaluatzeko prozedurak.

- Ohikoak ez diren egoeretan ustiatzeko kondizioei dagozkien neurriak, hala nola martxan jartzeari, ihesei, funtzionamendu-akatsi, denboraldi baterako gelditzeari edo behin betiko ixteari dagozkienak.

Ingurumen-baimen integratuak, halaber, aplikatu beharreko muga-balioen denborazko salbuespenak izan ditzake, baldin eta instalazioaren titularrak ondoren azaltzen diren neurrietako bat aurkezten badu. Neurri horiek administrazio eskudunak onartu behar ditu eta ingurumen-baimen integratuan aipatu behar dira. Hauek azaldu behar dira:

- 6 hileko epean, gehienez, emisioen muga-balioak beteko direla bermatzen duen birgaitze-plana.
- Poluzioa gutxiaraziko duen proiektua.

## **1.2.- EPER ERABAKIA SEKTOREAN**

Batzordearen 2000/479/EE Erabakia EPER Erabaki gisa ezagutzen da. Erabaki horretatik, batez ere, EBko estatu kideentzako baldintzak sortu arren, zuzenean eragiten du hainbat industria-sektoretan. Estatu kideek inbentarioa egin behar dute beren lurraldean, eta dagozkien datuak jakinarazi behar dizkiote Batzordeari. Industriak emandako informazioan oinarrituta, batez ere, bilduko dira datuak. EAEn kasuan, ingurumenaren eskuduntza gure autonomia-erkidegoko organo eskudunari transferitu zaio estatu espainiarretik.

EPER Erabakiaren arabeko lege-baldintzak taula honetan biltzen dira:

| <b>EPER ERABAKIAREN ondorio diren lege-baldintzak</b> |   |
|---|---|
| <b>Nor behartzen du ERABAKIAK?</b>                    |   |
| <input type="checkbox"/>                              | <b>EPER Erabakiak</b> estatu kideak behartzen ditu, horiek baitute instalazioetako datuak biltzeko ardura.  |
| <b>Zertara behartzen du ERABAKIAK?</b>                |   |
| <input type="checkbox"/>                              | Erabakiaren arabera, IPPC Zuzentarauaren I. eranskinean azaltzen diren jarduera industrialak – bat edo gehiago– gauzatzen diren banakako gune guztiek atmosferara eta uretara egiten dituzten isurpenen berri eman behar diote Batzordeari.   |
| <b>Zer emisio jakinarazi behar da?</b>                |   |
| <input type="checkbox"/>                              | Erabakiaren I. eranskinean biltzen diren 50 poluitzaileen zerrendatik atmosferara eta uretara isurtzen direnak jakinarazi behar dira.   |
| <b>Nola jakinarazi behar da?</b>                      |   |
| <input type="checkbox"/>                              | EPER Erabakiaren A2 eranskinean aipatzen den jakinarazpen-inprimakian azaltzen den eskemari segitu behar zaio.  |
| <b>Zer maiztasunekin jakinarazi behar da?</b>         |   |
| <input type="checkbox"/>                              | Hasieran 3 urtean behin. Lehen txostena 2003ko ekainean aurkeztu behar da, eta 2001eko emisioei buruzko datuak izan behar ditu; horiek ez badaude, 2003. edo 2001. urteetakoak izango ditu. 2008tik aurrera, urtean behin jakinaraziko zaio Batzordeari, abenduan.  |
| <b>Nori eragingo dio EPER Erabakiak?</b>              |   |
| <input type="checkbox"/>                              | Erabakiak EBko estatu kideak behartzen baditu ere (horiek baitute EPER estatu mailan ezartzeko ardura), eragin handiagoa izango du IPPC jarduerak gauzatzen dituzten industrietan eta erakundeetan eta Erabakiaren A1 eranskinean azaltzen den substantzia poluitzaileen zerrendakoak isurtzen dituzten industrietan. |

Informazio gehiago behar baduzu:

**[www.eper-euskadi.net](http://www.eper-euskadi.net)**

| Atmosferako emisioen muga-balioak | AIREA | EPER poluitzaileak/substantziak                           | URA | Uretara egindako emisioen muga-balioak |
|-----------------------------------|-------|---|-----|--|
| kg/urte                           |       | <b>Ingurumen-gaiak</b>                                    |     | kg/urte                                |
| 100.000                           | X     | CH <sub>4</sub>   |     |  |
| 500.000                           | X     | CO  |     |  |
| 100.000.000                       | X     | CO <sub>2</sub>   |     |  |
| 100                               | X     |   |     |  |
| 10.000                            | X     | N <sub>2</sub> O  |     |  |
| 10.000                            | X     | NH <sub>3</sub>   |     |  |
| 100.000                           | X     | NMVOG   |     |  |
| 100.000                           | X     | NO <sub>x</sub> (NO <sub>2</sub> gisa)                    |     |  |
| 100                               | X     | PFC2  |     |  |
| 50                                | X     | SF <sub>6</sub>   |     |  |
| 150.000                           | X     | SO <sub>x</sub> (SO <sub>2</sub> gisa)                    |     |  |
|                                   |       | Nitrogenoa guztira (N gisa)                               | X   | 50.000                                 |
|                                   |       | Fosforo guztira (P gisa)                                  | X   | 5.000                                  |
| kg/urte                           |       | <b>Metalak eta konposatuak</b>                            |     | kg/urte                                |
| 20                                | X     | As konposatuak (Arseniko elemental gisa)                  | X   | 5                                      |
| 10                                | X     | Cd eta konposatuak (Kadmio elemental gisa)                | X   | 5                                      |
| 100                               | X     | Cr eta konposatuak (Kromo elemental gisa)                 | X   | 50                                     |
| 100                               | X     | Cu eta konposatuak (Kobre elemental gisa)                 | X   | 50                                     |
| 10                                | X     | Hg eta konposatuak (Merkurio elemental gisa)              | X   | 1                                      |
| 50                                | X     | Ni eta konposatuak (Nikel elemental gisa)                 | X   | 20                                     |
| 200                               | X     | Pb eta konposatuak (Berun elemental gisa)                 | X   | 20                                     |
| 200                               | X     | Zn eta konposatuak (Kobre elemental gisa)                 | X   | 100                                    |
| kg/urte                           |       | <b>Substantzia organokloratuak</b>                        |     | kg/urte                                |
| 1.000                             | X     | kloroetanoa (DCE)   | X   | 10                                     |
| 1.000                             | X     | Diklorometanoa (DCM)                                      | X   | 10                                     |
|                                   |       | Kloroalkanoak (C10-13)                                    | X   | 1                                      |
| 10                                | X     | Hexaklorobentzenoa (HCB)                                  | X   | 1                                      |
|                                   |       | Hexaklorobutadienoa (HCBd)                                | X   | 1                                      |
| 10                                | X     | Hexakloroziklohexanoa (HCH)                               | X   | 1                                      |
|                                   |       | Konposatu organohalogenatuak (AOX gisa)                   | X   | 1.000                                  |
| 0,001                             | X     | PCDD+PCDF - dioxinak eta furanoak (Teq gisa) <sup>3</sup> |     |  |
| 10                                | X     | Pentaklorofenola (PCP)                                    |     |  |
| 2.000                             | X     | Tetrakloroetilenoa (PER)                                  |     |  |
| 100                               | X     | Tetraklorometanoa (TCM)                                   |     |  |
| 10                                | X     | Triklorobentzenoa (TCB)                                   |     |  |
| 100                               | X     | 1,1,1-trikloroetanoa (TCE)                                |     |  |
| 2.000                             | X     | Trikloroetilenoa (TRI)                                    |     |  |
| 500                               | X     | Trikloroemetanoa  |     |  |
| kg/urte                           |       | <b>Beste zenbait konposatu organiko</b>                   |     | kg/urte                                |
| 1.000                             | X     | Bentzenoa   |     |  |
|                                   |       | Bentzenoa, Toluenoa, etilbentzenoa, xilenoak (BTEX gisa)  | X   | 200                                    |
|                                   |       | Difenileter bromatua                                      | X   | 1                                      |
|                                   |       | Eztainua duten konposatu organikoak (Sn total gisa)       | X   | 50                                     |
| 50                                | X     | Hidrokarburo aromatikopolizikloak <sup>4</sup>            | X   | 5                                      |
|                                   |       | Fenolak (C total gisa)                                    | X   | 20                                     |
|                                   |       | Guztizko Karbono organikoa – TOC (C total edo OEK/3 gisa) | X   | 50.000                                 |
| kg/urte                           |       | <b>Beste zenbait konposatu</b>                            |     | kg/urte                                |
|                                   |       | Kloruroak (Cl total gisa)                                 | X   | 2.000.000                              |
| 10.000                            | X     | Kloroa eta konposatu ez-organikoak (HCl total gisa)       |     |  |
|                                   |       | Zianuroak (CN total gisa)                                 | X   | 50                                     |
|                                   |       | Fluoruroak (F total gisa)                                 | X   | 2.000                                  |
| 5.000                             | X     | Fluorra eta konposatu ez-organikoak (HF gisa)             |     |  |
| 200                               | X     |   |     |  |
| 50.000                            | X     |   |     |  |
| 37                                |       | <b>Poluitzaile-kantitatea</b>                             |     | 26                                     |

<sup>1</sup> Hauen batura: HFC23, HFC32, HFC41, HFC134, HFC134a, HFC152a, HFC143, HFC143a, HFC227ea, HFC236fa, HFC245ca.

<sup>2</sup> Hauen batura: CF<sub>4</sub>, C<sub>2</sub>F<sub>6</sub>, C<sub>3</sub>F<sub>8</sub>, C<sub>4</sub>F<sub>10</sub>, c-C<sub>4</sub>F<sub>8</sub>, C<sub>5</sub>F<sub>12</sub>.

**Oharra:** muga-balio horietatik gorako kasuetan, estatu kideek Europara bidali behar dute informazioa.

### 1.3.- NEURKETA/KALKULU/ZENBATESPENETAN OINARRITUTAKO EMISIOEN BALIOESPENA

Emisio-datu guztiak letra hauekin identifikatu behar dira: **N** (neurtua), **K** (kalkulatua) edo **Z** (zenbatetsia); horiek, hain zuzen, emisioak zehazteko zein metodo erabili den adierazten dute. Eta kg/urte-tan adieraziko dira, hiru digitu esanguratsu erabiliz.

Jakinarazitako datua gunean dauden iturrietatik egindako emisioen batura denean, iturri horietan metodo desberdinak erabil daitezkeenez, kode bakarra ipiniko zaio datuari ('N', 'K' edo 'Z'); kode hori jakinarazitako emisioaren guztizko datuan ekarpen handiena egin duenari dagokion metodoarena izango da.

Ondoren, **NEURTUA**, **KALKULATUA** eta **ZENBATETSIA** terminoak definitzen dira.

#### NEURTUA

Metodo normalizatuak edo onartuak erabiliz egindako neurketetan oinarritutako emisio-datua da. Hala ere, neurketa horietako emaitzak urteko emisio-datu bilakatzeko, kalkuluak egin behar dira nahitaez. Datu neurtuak hauek betetzen ditu:

- Gunearen berriazko prozesuak zuzenean kontrolatuta lortzen diren emaitzetan eta emisio-bide jakin baterako poluitzaileen kontzentrazioaren neurketa errealetan oinarrituta ondorioztatzen dira.
- Neurketa-metodo normalizatu edo onartuen emaitza da.
- Epe labur bateko neurketa puntualen emaitzetan oinarrituta kalkulatzen da.

Ondoren, neurketetan oinarrituta urteko emisioak kalkulatzeko (kg/urte) aplikatu behar den formula orokorra azaltzen da:

Kontzentrazioa mg/Nm<sup>3</sup>-tan emana badago:

$$\text{Emisioak (kg/urte)} = (\text{Kontzentrazioa (mg/Nm}^3) \times \text{Emaria (Nm}^3/\text{h}) \times \text{Instalazioaren funtzionamendu-orduak urtean})/10^6$$

Kontzentrazioa ppm-tan (bolumeneko parte-kopurua milioiko) emana badago:

Formula hau erabiltzen da:

$$\text{Emisioak (kg/urte)} = (\text{kontzentrazioa [ppm]} \times \frac{\text{poluitzailearen pisu molekularra } \left[ \frac{\text{g}}{\text{mol}} \right]}{22,4 \left[ \frac{\text{l}}{\text{mol}} \right]} \times \text{Emaria [Nm}^3/\text{h}] \times \text{Instalazioaren funtzionamendu-orduak urtean})/10^6$$

Mol baten bolumena, kondizio normaletan, 22,4 litrokoa da (273,15 K eta 101,3 kPa).

Edo erlazio hauek erabiliko dira:

| Nondik               | Nora               | Honekin biderkatu: |
|----------------------|--------------------|--------------------|
| ppm NO <sub>x</sub>  | mg/Nm <sup>3</sup> | 2,05               |
| ppm SO <sub>x</sub>  | mg/Nm <sup>3</sup> | 2,86               |
| ppm CO               | mg/Nm <sup>3</sup> | 1,25               |
| ppm N <sub>2</sub> O | mg/Nm <sup>3</sup> | 1,96               |
| ppm CH <sub>4</sub>  | mg/Nm <sup>3</sup> | 0,71               |

### KALKULATUA

Estatu mailan edo nazioartean onartutako zenbatespen-metodoak erabiliz egindako kalkuluetan eta industria-sektoreko emisio-faktore esanguratsuetan oinarritutako emisio-datua da. Hauek dira datu kalkulatuak:

- ❑ Jarduera-datuak (fuel-olioaren kontsumoa, ekoizpen-tasak etab.) eta emisio-faktoreak erabiliz egindako kalkuluak.
- ❑ Tenperatura, erradiazio globala eta horrelako aldagaiak erabiliz egindako kalkulu konplexuagoak.
- ❑ Masa-balantzeetan oinarritutako kalkuluak.
- ❑ Argitaratutako erreferentzietan deskribatutako emisioak kalkulatzeko metodoak.

Emisio-faktoreetan oinarritutako kalkuluaren adibidea da taula hau:



| ERAGIKETA                    | EMISIO-FAKTOREA                        |
|------------------------------|--|
| <b>Edozein prozesu</b>       | kg poluitzaile/tona produktu           |
|                              | kg poluitzaile/sartutako tona lehengai |
| <b>Errekuntza industrial</b> | kg poluitzaile/kWh GN                  |
|                              | kg poluitzaile/Nm <sup>3</sup> GN      |
|                              | kg poluitzaile/therm GN                |
|                              | kg poluitzaile/t fuel-olio             |
|                              | kg poluitzaile/tona propano            |
|                              | kg poluitzaile/t gasolio               |
|                              | kg poluitzaile/t ikatza                |
|                              | kg poluitzaile/t koke                  |

### ZENBATETSIA

Zenbatespen ez-normalizatuetan oinarritutako emisio-datua da; hipotesi edo iritzi baimenduetatik ondorioztatzen da. Hauek dira datu zenbatetsiak:

- Argitaratutako erreferentzietan oinarritzen ez diren iritzi baimenduak.
- Suposizioak, emisioak zenbatesteko metodologia onarturik edo jardunbide egokien gidarik ez badago.



## **2.- EKOIZPEN-PROZESUEN DESKRIBAPENA**


EAEko nekazaritzako elikagaigintzako eta abeltzaintzako IPPC Legearen aplikazio-eremuan sartutako prozesuak kategoriatan hauek hauek bil daitezke:

- ◆ Hiltegiak
- ◆ Okela prozesatzea
- ◆ Arraina ontziratzea
- ◆ Landare-olioa prozesatzea
- ◆ Esnea prozesatzea, gaztagintza eta izozkigintza
- ◆ Rendering-instalazioak (gantzgintza)
- ◆ Oilo erruleen granjak

Kontuan izan behar da nekazaritzako elikagaigintza eta abeltzaintza sektorean beste zenbait instalazio –hala nola galdarak– dituztela, eta horien emisioak ere jakinarazi egin behar dira. Horregatik, gida honetako atal batean emisio horiek nola kalkulatu behar diren deskribatzen da (4.5 atala).

### **2.1.- PROZESU OROKORRA. HILTEGIAK**

Hiltegietan egiten diren eragiketak hiltzen diren animalien arabekoak dira. Hurrengo eskeman behi, txerri eta hegaztien hiltegietako etapa nagusiak biltzen dira.



1. Irudia.- Prozesu orokorra. Hiltegiak

## **2.2.- PROZESU OROKORRA. OKELA PROZESATZEA**

Okela prozesatzeak esan nahi du okela ebakitzea eta prozesatzea, hala nola saltxitxak, txorizoa, urdaiazpikoa, hirugiharra eta abar fabrikatzea.

Horren barruan eragiketa hauek egon daitezke: hezurgabetzea, gantzak kentzea, xerratan ebakitzea, izpitzea, emultsionatzea...

Eragiketa horiek egiteko, tresna hauek behar dira: labanak, ebakitzailak, kanalak txikitzeko zerrak, azala kentzeko makinak...

Hestebete batzuk ekoizteko, disko-makina biragarri ebakitzailak erabiltzen dira, haragia zulodun plater batetik pasarazten dutenak.


Saltxitxak eta txorizoak egiteko, giharra eta materia gantzatsuaren nahastea erabiltzen da, beste zenbait osagarri, espezia eta kontserbagarriekin batera.

Nahastea pistoi-ponpa duen makina batean sartzen da, eta makina horrek bilgarri natural bat (hestea) edo artifiziaia betetzen du.

## **2.3.- PROZESU OROKORRA. ARRAINAK ONTZIRATZEA**

Atuna ontziratzeko lehen urratsa, behar izanez gero, atuna desizoztea izaten da. Arrainari erraiak kendu ondoren, garbitu egiten da. Gero, egosi egin behar izaten da. Urrats horretan tratamendu termikoa egiten zaio, eta horren arabera izango dira azken produktuaren propietateak, hala nola kolorea, egitura, eta zaporea. Egosi ondoren, arraina garbitu, hoztu eta zuritu egiten da. Gero, olioak, eskabetxea gehitzen zaio. Azkenik, ontzia itxi eta esterilizatu egiten da.

Hurrengo irudian antxoa ontziratzeko prozesua jaso da:




2. irudia: Antxoa ontziratzeko prozesua

#### 2.4.- PROZESU OROKORRA. LANDARE-OLIOA PROZESATZEA


Soja-hazien prozesua deskribatzen da. Beste hazi batzuen kasuan ere, olioia ekoizteko prozesua antzekoa da; alea bereizteko modua da desberdina.

Soja-hazien prozesuak bost urrats ditu:

- Haziak manipulatzeta, igotzea.
- Haziak prestatzea, disolbatzailea erauzteko.
- Disolbatzailea erauztea eta olioari disolbatzailea kentzea.
- Hazi-oskoletatik disolbatzailea kentzea.
- Olioia fintzea.



3. irudia: Aleak prestatzea disolbatzailea erauzteko



4. irudia: Disolbatzailea erauzteko prozesua



### Landare-olioa fintzea

Fintzean ezpurutasunak, hala nola olio-erretxinak, gantz-azido libreak, pigmentuak eta kolore eta zapore txarra kentzen dira. Fintzeko bi modu daude: prozesu fisikoa eta prozesu kimikoa.

#### Prozesu kimikoa:

Olio-erretxinak kentzeko, lehenengo, ura gehitzen da hidratatzeko, eta, ondoren, zentrifugatu egiten da. Hidrata ezin daitezkeen olio-erretxinak hidratagarri bihurtuz kentzen dira. Horretarako, azido fosforikoa edo zitrikoa erabiltzen da, eta ondoren ura gehitu eta zentrifugatu egiten da.

Gero, neutralizatu egiten dira gantz-azido libreekin erreakzionatzen duen disoluzio alkalinoa erabiliz. Erreakzio horren bidez, xaboiak eratzen dira, eta, zentrifugatuz, bereizi egiten dira. Gero, lehortu egiten dira.

Neutralizatutako olioak zuritu egiten da, material koloratzailea eta beste osagai urri batzuk –hala nola produktu oxidatzaileak edo trantsizio-metalen aztarnak– kentzeko.

Osagai lurrunkorrek desodorazioz kentzen dira. Horretarako, lurruna presio eta temperatura handitan injektatzen da. Fintutako olioak iragazi eta biltegitatu egiten da.

#### Prozesu fisikoa:

Fintze fisikoan olio gordinari olio-erretxinak kendu, eta lurrun-stripping bidez zuritzen da. Horrekin, gantz-azido libreak, usainak eta konposatu lurrunkorrek urrats bakarrean kentzen dira.

Olioaren arabera, hori fintzeko erabil daitezkeen beste hiru prozesu ere badaude:

- Olio batzuetan, hala nola ekilore-olioan, uhertasuna sor dezaketen argizariak kentzen dira. Hori egiteko prozesuan, lehenengo olioak hoztu, eta, ondoren, iragazi egiten da.
- Zatiketzea: prozesu honen hasieran olio solidoa urtu egiten da erabat. Gero, hoztu egiten da, eta, horrekin, olioak ezaugarri desberdinak dituzten zatitan bereizten da.
- Interesterifikazioa: triglizeridoak gantz-azidotan eta glizeroletan bereiztea eta ondoren berriz konbinatzea da. Erreakzioa azido zitrikoa eta fosforikoa gehi katalizatzaile bat erabiliz egiten da.


- Hidrogenazioa: prozesu honen bidez, olioen/gantzen fusio-puntua igotzea lortzen da hidrogenoa gehituta.

## 2.5.- PROZESU OROKORRA. ESNEKIAK.

Esnekiei dagokienez, hauek aztertuko ditugu: esne-ekoizpena (pasteurizazio-prozesua), gazta-ekoizpena eta izozki-ekoizpena.

### **Esnea prozesatzea**

Hurrengo eskeman esnearen pasteurizazio-prozesua dago.



5. irudia: Esnearen prozesatzea

### **Gaztagintza**

Oro har, gazta egiteko prozesuak urrats hauek ditu: gatzagiarekin eta/edo azido laktikoarekin koagulua egitea, gazuretako gaztanbera bereiztea eta gaztanbera manipulatzeko gaztari eman nahi zaizkion ezaugarriak emateko.

### **Izozkigintza**

Izozkiek, oro har, osagai hauek izaten dituzte: % 6 – 12 gantza, % 7,5 - 11,5 esnea eta % 13 - 18 azukrea. Horiez gain, egonkortzaileak, emultsionatzaileak, koloratzaileak eta zapore-emaileak ere gehitzen zaizkie.

Osagaiak nahasi, berotu eta homogeneousatu egiten dira. Nahaste hori, lehenengo, pasteurizatu egiten da berotuz, eta, gero, hoztu eta 4-24 orduan hotzean gordetzen da zahar dadin. Hozkailu jarraituak azkar izozteko erabiltzen dira –izozte-prozesuan aire konprimitua sartzen da–. Aire konprimitua dela eta, bolumena handiago egiten da. Azkenik, izozkia edukiontzitan metatu eta izozte-tuneletan sartzen da.

## **2.6.- PROZESU OROKORRA. KANALAK EDO ANIMALIA-HONDAKINAK EZABATZEKO EDO APROBETXATZEKO INSTALAZIOAK**

Rendering-instalazioetan gantzak, hezurak eta okela proteinikoa prozesatzen dira, animalia-azpiproduktuak lortzeko.


Rendering-instalazioetan, lehengaiekin –gantzak, odola, lumak, seboa, hondakinak, hildako animaliak eta abar– azpiproduktuak ekoizten dituzte.

Rendering-prozesuak bi motatakoak dira: gantz jangarria ekoizten duena eta jangarria ez den gantza ekoizten duena. “Jangarrietan” animalien gantz-ehunak prozesatzen dituzte gantz jangarriak eta proteinak ekoizteko. “Jangarriak ez direnetan” jangarria ez den gantza ekoizten da. Etxe-abereei eta hegaztiei emateko, xaboiak egiteko eta gantz-azidoak ekoizteko erabiltzen dira.

Jangarriak ez diren gantzak ekoizteko, bi prozesu-mota daude: prozesu hezea eta lehorra.

Prozesu hezeak irakinda bereizten ditu gantza eta lehengaia. Prozesuan, lehengaiari ura botatzen zaio, egosteko lurruna erabiltzen da eta gantza bereizi egiten da.

Prozesu lehorra prozesu jarraitua edo etena izaten da, eta lehengaia deshidratatu egiten du gantzak askatzeko. Deshidratatu ondoren, urtutako gantza solidoetatik (proteinak) bereizi egiten da. Ondoren, prozesu lehor jarraitu/etenaren etapa nagusiak bildu dira.



6. irudia: Rendering-prozesua

## 2.7.- PROZESU OROKORRA. OILO ERRULEEN GRANJAK

Bi sistema erabiltzen dira granjetan oiloak edukitzeko:

- Kaiola-sistemak: sistema honetan kaiolak baterian egoten dira bata bestearen ondoan, eta toki gutxi dagoenean edo egitura-diseinuko elementuak falta direnean erabiltzen da.
- Kaiolarik gabeko sistemak: oiloak eraikinaren kanpoko eremu itxi batera atera daitezke. Eremu horretan libre ibili eta arrautzak jar ditzakete.

Kaiolak jartzeko eta zirina biltzeko lau modu daude. Dena den, granja batzuetan modu horien konbinazioz osatzen da sistema.

- Bateria-erako sistemak, zirina biltzeko eremu irekiak kaiola azpian dituztela: zirina kaiola azpian dagoen zulo batera biltzen da, eta urtean behin ateratzen da.
- Bateria-erako sistemak, zirina kentzeko arraspagailuekin: aurrekoak bezalakoak dira, baina zirin-arraspagailuak dituzte. Zirina astero edo egunero ateratzen da beste toki batean metatzeko.
- Bateria-sistemak zirin-biltegitratze aireztatuarekin (putzu sakona edo erreten-sistemak). Gorotz likidoak putzura erortzen dira, eta han egoten dira urtebete edo gehiago. Kaiola gainean kanpoko airea xurgatzen duten haizagailuak jartzen dira. Haize hori, lehenengo,

kaiola-eremutik iragaten da, haiek berotzeko, eta, gero, zirinaren gainetik, lehortzeko. Bildutako zirina berotzean, hartzitu egiten da, eta amoniako asko askatzen da.

- Zutabe-sistema: aurreko sistemaren antzekoa da, baina kaiola-eremua eta zirin-biltegia bereizita egoten dira eta zirina haizearekin lehortzen da.
- Zirinak biltzeko kanpai-bateria, non zirina biltegi itxi batera –lehortzeko sistemarekin ala ez– maiz eramaten den: zirina kaiola azpitan egiten diren kanpaitan biltzen da eta biltegi itxi batera eramaten da, gutxienez astean bitan. Airea kaiola-ilara bakoitzaren azpira sartzen da.



### 3.- EMISIO ATMOSFERIKOAK

Ondorengo taulan, EPER Erabakiaren III. Eranskinaren arabera jakinarazi beharko liratekeen –lagungarri izan nahi du– atmosfera-poluitzaileen zerrenda dago, kategoria hauetan berezita:

6.4 (a): 50 tona/egun baino kanalen ekoizpen-ahalmen handiagoa duten hiltegiak.

6.4 (b): Hauetatik abiatuta produktuak fabrikatzeko tratamenduak eta aldaketak:

- animalia-jatorriko lehengaiak (esnea ez dena), 75 tona/egun baino produktu gehiago ekoizteko ahalmena dutenak;
- Landare-jatorriko lehengaietatik eguneko 300 tona produktu (hiru hileko batez besteko balioa) baino gehiago ekoizteko ahalmenarekin.

6.4 (c): Esnearen tratamendua eta aldaketa, egunean 200 tona esne baino gehiago (urteko batez besteko balioa) jasota.

6.5 Kanalak edo animalia-hondakinak ezabatzeko edo aprobetxatzeko instalazioak, 10 tona/egun-eko ahalmena baino handiagoa dutenak.

6.6 Hegaztien edo txerrien hazkuntza intentsiborako instalazioak, baldintza hauekin:

- a) 40.000 leku izatea oilo erruleentzat, edo leku-kopuru baliokidea beste hegazti batzuentzat.

1. Taula EPER Aireko poluitzaileak.

| Nekazaritzako elikagaigintzak isuritako poluitzaileak | Hiltegiak | Animalia-lehengaia | Landare-lehengaia | Esnea | Rendering-a | Granjak |
|---|-----------|--------------------|-------------------|-------|-------------|---------|
| PM10  |           |                    |                   |       |             |         |
| Kloroa eta konposatu ez-organikoak                    |           |                    |                   |       |             |         |
| Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak                  |           |                    |                   |       |             |         |
| PCDD+PCDF (dioxinak + furanoak)                       |           |                    |                   |       |             |         |
| SO <sub>x</sub>                                       |           |                    |                   |       |             |         |
| NO <sub>x</sub>                                       |           |                    |                   |       |             |         |
| NM VOC  |           |                    |                   |       |             |         |
| NH <sub>3</sub>                                       |           |                    |                   |       |             |         |
| N <sub>2</sub> O                                      |           |                    |                   |       |             |         |
| HFCs  |           |                    |                   |       |             |         |
| CO <sub>2</sub>                                       |           |                    |                   |       |             |         |
| CH <sub>4</sub>                                       |           |                    |                   |       |             |         |

Grisez, Europako Batzordearen EPER betetzeko gidaliburuko orientazio-azpizerrrenda

| Nekazaritzako elikagaigintzak isuritako poluitzaileak | Hiltegiak | Haragi-p. | Arraina | Landare-lehengai a | Esnea | Rendering-a | Granjak |
|---|-----------|-----------|---------|--------------------|-------|-------------|---------|
| PM10  | •         | •         |         | ♦                  |       | •           | ♦       |
| Kloroa eta konposatu ez-organikoak                    |           |           |         | •                  |       |             |         |
| Hidrokarburo aromatiko poliziklikoak                  | •         | •         |         |                    |       |             |         |
| SO <sub>x</sub>                                       | ♦         |           |         | •                  |       | ♦           |         |
| NO <sub>x</sub>                                       | ♦         |           |         | •                  |       | ♦           |         |
| NM VOC  | •         | •         | •       | ♦                  |       | •           | •       |
| NH <sub>3</sub>                                       | •         | •         |         |                    |       |             | ♦       |
| N <sub>2</sub> O                                      |           |           |         |                    |       |             | ♦       |
| CO <sub>2</sub>                                       | ♦         |           |         |                    |       | ♦           |         |
| CO  |           |           |         | •                  |       |             |         |
| CH <sub>4</sub>                                       |           |           |         |                    |       |             | ♦       |

• Emisio-faktorerik ez duten isuritako konposatuak

♦ Emisio-faktorea duten isuritako konposatuak

Gainera, kontuan izan behar da isuritako konposatu horiez gain, nekazaritzako elikagaigintzako prozesuetan beste zenbait instalazio ere erabil daitezkeela, hala nola galdarak, eta horiek ere emisioak egin ditzaketela. Emisio horiek nola kalkulatu behar diren 4.5 atalean agertzen da.

Esnekien prozesuetan emisio nagusiak galdaretakoak direla azpimarra daiteke.



### 3.1.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. HILTEGIAK

Hiltegietan egiten diren eragiketek PM eta PM-10 sor ditzakete, baita VOCak ere. Eta horiek usain txarra botatzen dute. Animaliak zorabiatzeko CO<sub>2</sub>-arekin egiten diren eragiketek konposatu hori aska dezakete. Amoniakoko-emisioak ere sor daitezke hozte-sistemetan.

Emisioen arazo nagusietako bat usainak dira. Hurrengo taulan animaliak eta prozesuetako etapak gurutzatu eta usain handiena botatzen dutenak markatu dira.

| Prozesuko etapa                        | Animalia-mota |                 |           |
|--|---------------|-----------------|-----------|
|  | Behi-aziendak | Txerri-aziendak | Hegaztiak |
| Ibilgailutik jaitsi eta hura garbitzea |               |                 |           |
| Ukuilua                                |               |                 |           |
| Zorabiatzea, hiltzea                   |               |                 |           |
| Odolustea                              |               |                 |           |
| Larrutzea (behi-aziendak)              |               |                 |           |
| Burua, apatxak, etab. kentzea          |               |                 |           |
| Galdarraztatzea (txerriak, hegaztiak)  |               |                 |           |
| Apatxak eta zurdak kentzea (txerriak)  |               |                 |           |
| Lumatzea (hegaztiak)                   |               |                 |           |
| Gaseztatzea (txerriak)                 |               |                 |           |
| Azalaren tratamendua (txerriak)        |               |                 |           |
| Erraiak kentzea                        |               |                 |           |
| Zatikitzea                             |               |                 |           |
| Hoztea                                 |               |                 |           |

Prozesuan erabiltzen diren lurrin-galdarek eragindako emisioak ere badaude, hau da, galdararen errekontza-gasen emisioak.

Batzuetan, animaliak deskontaminatzeko, azido azetikoa erabiltzen da eta konposatu horren emisioak izaten dira.

### 3.2.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. HARAGIA PROZESATZEKO INSTALAZIOAK

Haragia prozesatzeko instalazioetan egiten diren eragiketek PM eta PM-10 sor ditzakete, baita VOCak eta PAHak ere. Amoniako-emisioak ere sor daitezke hozte-sistemetan.

Prozesuan erabiltzen diren lurrun-galdarek eragindako emisioak ere badaude, hau da, galdararen errekontza-gasen emisioak.


### 3.3.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. ARRAINA ONTZIRATZEA.

Usainak dira arrainak prozesatzeko instalazioetako emisio-arazo nagusia. Oro har, atuna latoratzeko prozesuak sardinenak baino usain gutxiago botatzen du. Atunarenean, gas usaintsuak egosleketan gelditzen dira, eta, bigarrean, berriz, lurrun eta gas usaintsuak zuzenean atmosferara bidaltzen dira. Konposatu usaintsuak, batez ere, hidrogeno-sulfuroa eta trimetilamina dira.

Arrainak ontziratzeko prozesuan ia ez da partikularik botatzen.

Prozesuan erabiltzen diren lurrun-galdarek eragindako emisioak ere badaude, hau da, galdararen errekontza-gasen emisioak.

Hurrengo irudian atuna ontziratzeko prozesuan gertatzen diren emisio nagusiak ikus daitezke.



7. irudia: Atuna ontziratzeko prozesua

### **3.4.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. LANDARE-OLIOAREN PROZESATZEA.**

Landare-olioa prozesatzean izaten diren emisio nagusiak PMak eta VOCak dira. Haziak transferitzean, manipulatzean eta prozesatzean sortzen dira PMak. VOCen emisioak disolbatzailearen erauzketan gertatzen dira (hexanoa). Konposatu hori atmosfera-poluitzaile arriskutsu gisa dago sailkatua.

Disolbatzaile-emisioak landare-olioaren prozesatze-instalazio barruko hainbat puntutan sortzen dira. Batzuk hura transferitzean eta biltegitratzean gertatzen dira, eta beste batzuk tutueria-ihesetan eta haizatzeguneetan. Disolbatzaile-kantitate txiki batzuk (bolumenaren % 0,2raino) olio gordinean gelditzen dira.

Prozesuan erabiltzen diren lurrun-galdarek eragindako emisioak ere badaude, hau da galdararen errekontza-gasen emisioak.

2.4. ataleko eskemetan, alea prestatzeko eta disolbatzailea erauzteko etapak ikus daitezke, baita partikulen eta hexanoaren emisio-foku nagusiak zein diren ere.

### **3.5.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. ESNEKIAK**

Prozesuan erabiltzen diren lurrun-galdarek eragindako emisioak ere badaude, hau da, galdararen errekontza-gasen emisioak.

### **3.6.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. KANALAK EDO ANIMALIA-HONDAKINAK EZABATZEKO EDO APROBETXATZEKO INSTALAZIOAK**

Rendering-eragiketetan askatzen diren konposatu nagusiak VOCak dira. Hauek dira emisio potentzial gisa kualitatiboki identifikatu diren konposatu nagusiak: sulfuro organikoak, disulfuroak, 4-7 karbonoko aldehidoak, trimetilamina, 4 karbonoko aminak, kinolina, dimetilpirazina, beste zenbait pirazina, 3-6 karbonoko azido organikoak. Nahiz eta kopurutan txikiagoak izan, hauen emisioak ere identifikatu dira: 4-7 karbonoko alkoholak, zetonak, hidrokarbuo alifatikoak, konposatu aromatikoak.

Emisio-iturri nagusiak egoslekuak eta torloju-prentsak dira. Lehengaia ere VOCen emisio-iturri izan daiteke.

VOCen emisioez gain, ehotze- eta bahetze-etapetan partikulak ere emititzen dira.

2.6. ataleko eskeman rendering-prozesuetako emisio-foku nagusiak agertzen dira.

### **3.7.- EMISIO ATMOSFERIKOAK. OILO ERRULEEN GRANJAK**

Emisioetan eragiten duten faktore nagusiak hauek dira:

- Granjak dauden eraikinen disenua
- Aireztatze-sistema eta aireztatze-ratioa
- Granja barruko tenperatura.
- Zirin-kantitatea. Kantitate hori faktore hauen arabera da: elikadura-estrategia, elikadurako proteina-maila, lo egiten duten denbora, animaliei edaten emateko sistema, animalia-kopurua...

Emisio nagusiak hauek dira: amoniakoa, usainak eta hautsa. Oxido nitrosoaren (N<sub>2</sub>O), metanoaren (CH<sub>4</sub>) eta konposatu organiko lurrunkorren (NMCOV) emisioa zirinen barne-biltegiarekin lorturik dago. Zirina maiz kentzen bada, emisio-mailak nahikoa txikiak izaten dira.

Hidrogeno sulfuroa (H<sub>2</sub>S), oro har, kantitate txikitik (1 ppm baino gutxiago) egoten da.

## 4.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK

Emisio-faktoreak ratioak dira, eta, kasu honetan, oilo bakoitzeko eta urteko isuritako substantzia baten kantitatea, lehengai tona bakoitzeko emititutako substantzia baten kantitatea eta abar adierazten duten ratioak dira.

Iturri hauek kontsultatu dira eta horietatik lortu dira faktore gehienak:

- EMEP/CORINAIR (Atmospheric Emission Inventory Guidebook).
- EPA (Emission Factor and Inventory Group).
- IPPC (Documento Meeting report del BREF para la gestión de residuos peligrosos)
- National Pollutant Inventory (NPI – Australia)
- National council for air and stream improvement, Inc (NCASI)

### 4.1.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. HILTEGIAK

Hurrengo taulan hiltegietaiko emisio-faktoreak daude jasota. Faktore horien kalitatea nahikoa eskasa da.

| Isuritako substantziak | Emisio-maila (kg konposatu/ t lehengai) |
|------------------------|---|
| CO2                    | 22 - 200                                |
| SO2                    | 0,45 – 1,1                              |
| Nox                    | 0,29 – 0,52                             |

### 4.2.- EMISIO-RATIOAK/-FAKTOREAK. LANDARE-OLIOA PROZESATZEA

